





Heziketa – Zentroetarako Katalogoa

Hezkuntza-proposamenak 2015







Garapenerako lankidetzako GKE global bat gara, haurren mesedetan eta haien eskubideen alde diharduena, kalitateko hezkuntza jasotzeko eskubidearen alde bereziki. Neska-mutilekin zein haien ingurunearekin lan egiten dugu, haien eskubideak eta ongizatea bermatzeko moduko gizarte bidezkoago eta ekitatiboagoak sustatzeko. Pertsona guztiek bizitza duin batez erabat gozatzeko mundu bat eraiki nahi dugu.

Gure lehentasuna haurrek eta nerabeak dira, egoera ahulenean eta bazterturik dauden taldeak batik bat, nesken gan arreta berezia jarrita.

Gure lanaren xedea da haurren eskubideak errealitatean gauza daitezzen, eskubide horiek arautzen dituen nazioarteko konbentzioaren esparruan (Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989), bai eta haurrentzat ahalik eta ongizaterik handiena bilatzea ere, hura izanik gizarte bidezkoagoetaranzko aurrerapena ebaluatzeko erreferentzia.

Hezkuntza, berez eskubide bat izateaz gain, gainerako eskubide eta askatasunak lortzeko ezinbesteko bitartekoa da. Horregatik, gure uste sendoa da hezkuntzak izan behar duela ezin ukatuzkoa, erabilgaia, sarbide errazekoa, onargarria eta moldagarria. Gure aburuz, era horretan baino ezin du hezkuntzak eraldatu pertsonen zein haiek bizi diren komunitateen bizitza, gizarte bidezkoago eta ekitatiboagoak eraikitzen lagunduta.




Gure hezkuntza-proposamena

Eskuetan duzue Educoko garapenerako hezkuntzako lantaldeak **2015/2016ko ikasterterako** prestatu duen hezkuntza-proposamena.

Hainbat ekintza eta tresna erabilgarri eta praktikok eratzen dute proposamena; halakoek **herritartasun-ikuspegi global eta eraldatzailea** bultzatzen dute, haur eta nerabeen eskubideen ezagutzan eta sustapenean (Nazio Batuen kobentzioan jasotako eskubideak, hain zuzen) nahiz ondoriozko erantzukizunen onarpenean oinarriturik, bai eta **garapenerako hezkuntzan** ere, hura izanik gure lanaren funtsa.

Ezagutza horren eta egiteko modu horren bidez, haurren eta nerabeen sentsibilizazioa eta mobilizazioa sustatu nahi ditugu, jarrera kritikoak garatzeko gai izan daitezen, eta beraien ingurunean ekintza eraldatzaile txikiak aurrera eraman ditzaten ahalbidetzeko, **mundu bidezkoagoa, solidarioagoa eta iraunkortasun handiagokoa lortzera bideraturik.**

Baina gure proposamenak zeuen parte-hartzearen beharra du, hura gabe ezin baitugu jarraitu ikasten, hazten eta inspiratzen, urtez urte hobetze aldera.



Katalogo hau nola erabili

Gure proposamenak eskaintzen dizkiegu bai haur, lehen eta bigarren hezkuntzako eskola-taldeei, bai irakasleei, hezkuntza-lantaldeei, hezkuntza-arloko kolektibo eta erakundeei, eta abarri.

1


Gai-ardatza eta jarduera, material edo hezkuntza-proposamenaren izenburua.

2

Jarduera presentziala den ala ez, eta gutxi gorabeherako iraupen-denbora.


Jarduera presentziala da Educoko lantalde teknikoak eta boluntarioek parte hartzen duen ikastetxeari, erakundeari edo taldeari laguntza, dinamizazioa eta aholkua ematen diotenean.

Jarduera ez-presentziala denean, ikastetxeak edo dena delako erakundeak Educok prestatutako materialak dohainik jasoko ditu edo deskargatu ahalko ditu; horrela, proposatzen diren gaiak era autonomoan landu ahalko ditu, eduki eta proposamen praktiko batzuk erabiliz. Hezkuntzako lantaldeak bere burua eskaintzen du irakasleei aholkua online emateko, proposamen horietako batzuk aurrera eraman nahi dutenean.



3

Hartzaileak. Jarduerak eta materialak hainbat adinetakoentzat eta hainbat pertsona- eta talde-motarentzat diseinaturik daude.



4

Hezkuntza-baliabideak eta material lagungarriak.

Jarduerak dinamizatzen erabiliko diren hezkuntza-materialak dira.



Proposamenen laburpena

Jarduera	Presentziala/denbora	Hartzaileak	Baliabideak
Sentsibilizazioa			
Hegoalderanzko Begiradak: Mali. Ura, bizi-iturri	Presentziala 60-90 min	Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa Helduen taldeak	Internet-DVD
Hegoalderanzko Begiradak: hazi aurretik, haurren lana. Bangladesh	Presentziala 60-90 min	DBHko 2. zikloa Helduen taldeak	Internet-DVD Argazki-erakusketa
Neskak bidegile: ez haurren ezkontzari	Presentziala 90-120 min	DBH eta Batxilergoa Helduen taldeak	Internet-DVD
Zona Reyna: hezkuntza herriaren esku (Guatemala)	Ez-presentziala 60 min	DBH eta Batxilergoa Helduen taldeak	Internet-DVD
“Hegoalderanzko Begiradak” Erakusketa	Ez-presentziala Presentziala 50 min	Publikoa, oro har	Erakusketa eta triptikoa
Haurren lan-esplotazioari buruzko erakusketa	Ez-presentziala Presentziala 50 min	Publikoa, oro har	Erakusketa eta triptikoa
Haurren eskubideak			
Haur hezkuntzarako eta lehen hezkuntzarako hezkuntza-gida haurren eskubideei buruz, haurren parte-hartze metodologiek	Presentziala Ez-presentziala 60 min-tik aurrera	Haur eta Lehen Hezkuntza Erakunde sozialetako haur-taldeak Irakasleak eta hezkuntza-lantaldeak	“Eraldatzen ikasteko zirrara” irakasle eta hezkuntza- lantaldeentzako gida
Haurren eskubideei buruzko erakusketa	Ez-presentziala Presentziala 50 min	Publikoa, oro har	Erakusketa eta triptikoa
Haurren eskubideen kartela	Ez-presentziala	Haur eta Lehen Hezkuntza Erakunde sozialetako haur-taldeak Irakasleak eta hezkuntza-lantaldeak	Haurren eskubideen laburpen- kartela
Mobilizazio-ekintza: Haurren Eskubideen Konbentzioaren urteurrena ospatzea	Ez-presentziala 60 min-tik aurrera	Publikoa, oro har	Erakusketa eta triptikoa

Jarduera	Presentziala/denbora	Hartzaileak	Baliabideak
Hezkuntzarako eskubidea			
Hezkuntzaren Aldeko Munduko Kanpainaren gida didaktikoak	Ez-presentziala Presentziala 50 min	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, hezkuntza ez-formala eta Helduen Hezkuntza	Maila guztietarako unitate didaktikoak
Hezkuntzari buruzko erakusketa	Ez-presentziala Presentziala 50 min	Publikoa, oro har	Erakusketa eta triptikoa
Mobilizazio-ekintza: HMEA - Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astea	Ez-presentziala Presentziala	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, hezkuntza ez-formala eta Helduen Hezkuntza. Publikoa, oro har	Jarrera-agiria, kartelak, triptikoak eta mobilizazio-jarduera
Haurren parte hartzeko eskubidea			
Haurren parte-hartzeari buruzko prestakuntza-materiala, irakasleentzat eta hezkuntza-lantaldeentzat	Presentziala Ez-presentziala 60 min-tik aurrera	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta erakunde sozialetako haur- eta gazte-taldeetako irakasle eta hezitzaileak	Irakasle eta hezkuntza-lantaldeentzako gida
Haurren parte-hartzea: haur kontseiluak	Presentziala	Udaletako Haur - Kontseiluak	Haur eta nerabeentzako eta udal-eragileentzako prestakuntzat
Haurren parte-hartzeari buruzko erakusketa	Ez-presentziala Presentziala 50 min	Publikoa, oro har	Erakusketa, dosierra eta triptikoa
Babeserako eskubidea			
Zurrumurruen aurkako proposamena: nola lan egin zurrumurru, estereotipo eta aurreiritziekin	Presentziala 60 min-tik aurrera	-	-
Gatazkak ebaztea	Ez-presentziala Presentziala 50 min	-	-
Beste hezkuntza – material, proposamen eta ekintza batzuk			
Prestakuntzazko kapsulak eta eskolentzako aholkularitza	Presentziala 60 min-tik aurrera	-	-

Proposamenak



Hegoalderanzko Begiradak: Mali. Ura, bizi-iturri

DESKRIBAPENA:

Tailer honek gogoeta egiteko bidea ematen du, bideo bat ikusiz, Malin dauden ur-arazoei buruz eta arazo horiek pertsonen osasunean dituzten ondorioei buruz.



HELBURUAK:

- Uraren eta osasunaren kontzeptuen arteko lotura garatzea
- Taldeei Maliko errealitatea ezagutaraztea
- Erantzunkidetasun-sentimendua sustatzea
- Taldeak beste errealitate batzuetara hurbiltzea, kultura-aniztasunaz sentsibilizatuz

EDUKIAK:

- Ibaiak Maliko pertsonen bizitzan duen rola ulertzea
- Uraren eta osasunaren arteko lotura
- Nesken eta emakumeen bizitza Malin
- Uraren negozioa
- Bideoan proposaturiko konponbideak

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Interneteko konexioa edo DVD-irakurgailua eta proiektagailua



60 a 90 minutu



Ariketa Presentziala



Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eskola-taldeak, 13 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta nerabeak, eta helduen taldeak.

Hegoalderanzko Begiradak: hazi aurretik, haurren lana. Bangladesh

DESKRIBAPENA:

Tailerra hasteko, "Hegoalderanzko begiradak: hazi aurretik" dokumentala proiektatzen da, haurren lanaren kausez eta ondorioez gogoeta egiteko.



HELBURUAK:

- Taldeei haurren lanaren errealitatea ezagutaraztea
- Haurren kausak ezagutzea
- Haurren eskubideen urraketaz eta haurren esplotazioarekin duten loturaz sentsibilizatzea
- Erantzunkidetasun-sentimendua sustatzea
- Taldeak beste errealitate batzuetara hurbiltzea, kultura-aniztasunaz sentsibilizatuz

EDUKIAK:

- Haurren lana: Tipologia. Lana eta esplotazioa
- Haurren lanaren kausak: Pobrezia. Bazterkeria. Hezkuntzarako sarbiderik eza.
- Haurren lanaren alternatibak: Legeak. Giza garapena. Hezkuntza

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Interneteko konexioa edo DVD-irakurgailua eta proiektagailua

Haurren lanari buruzko erakusketa bat ere badugu, jardueraren lagungarri antola daitekeena



60 a 90 minutu



Ariketa presentziala



Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eskola-taldeak, 13 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta nerabeak, eta helduen taldeak.

Neskak bidegile: Ez haurren ezkontzaril

DESKRIBAPENA:

“Neskak bidegile” proposamenak genero-bazterkeria aztertzeke helburua du, munduko hainbat tokitan neska txikiek zein neska nerabeek hezkuntza-sisteman sartzeko eta jarraitzeke jasaten duten bazterkeria, zehazki. Haurren ezkontzak dakarren eskubide-urraketako egoerara nahiz horrek nesengan eta familiengan duen inpaktura hurbiltzen gara.



HELBURUAK:

- Desberdintasun lokal eta globalen azterketara hurbiltzea
- Kontzientzia hartzea haurren eskubideen urraketaz eta, zehazki, nesken eskubideenaz
- Genero-bazterkeriari buruzko gogoeta sustatzea.
- Bangladesheko errealitatea eta arazo nagusiak ezagutzea
- Banakako erantzukizunaz gogoeta egitea

EDUKIAK:

- Haurren ezkontza
- Haurren eskubideak
- Genero-desberdintasuna

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Interneteko konexioa edo DVD-irakurgailua eta proiektagailua



60 a 90 minutu



Ariketa Presentziala



Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eskola-taldeak, 13 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta nerabeak, eta helduen taldeak.

Zu Ere Bezara Gai

DESKRIBAPENA:

Hezkuntza-proiektu berritzailea da, eta eskoletako haurrei erakusten die mundua hobetzeko gauza asko egin daitezkeela, hilean euro bat aurreztuz. Enpatia eta konpromisoa jorratzen ditu, eta ikertzen eta konpartitzen irakasten du. Helburuak:

- Haurrek beren inguruko mundua ulertzen dutela sentitzea, beren errealitatea eta beste haur batzuen errealitatea ulertzen dutela sentitzea.
- Ezberdintasunei aurre egitea, bestelako ikuspegi batetik: norberaren buruarekin eta besteekin konektatuz, jendea txertatuz eta ikuspegiak trukatzuz.
- Haur eta gazteek ikertzen ikastea, ezberdintasun egoeran dauden beste haur batzuen errealitateekin konektatzeko, eta hori izan dadila mundua aldatzeko hazia.



GAIK JORRATZEKO MATERIALA:

Interesa duten eskolei material guztia eskaintzen zaie; horrez gain, proiektuaren webgunean ere eskura daiteke material hori: <http://www.tutambienpuedes.info/>

- Ipuina: kondaira guarani batean oinarritutako ipuina da, eta, fabula baten bidez, txantxangorriaren istorioa kontatzen du, izan ere, sute bat itzali zuen, banan-banan ur-tantak jaurtiz. Era berean, haur batek proiektu bat sortzen du, beste haur batzuen gosetea eta pobrezia desagerrarazteko.
- Pedagogia-gida: proiektuak pedagogia-gida bat dakar, egokitu eta aberastu daitekeena, eskola bakoitzaren beharrak hobeto asetzeko.
- Dokumentala: proiektuaren pilotu-edizioa Bartzelonan egin zuten, Ágora Sant Cugat International School eskolan, 2012/13 ikasturtean. Ikasleek erabaki zuten Kenyako umezurztegi batean gela bat eraikitzea, eta Espainiako jantoki sozial batekin elkarlanean aritu ziren.

BALDINTZA TEKNIKOAK:

Internetarako sarbidea eta proiektorea



BANGLADESH EZKONTZA ETA HAUR-ENPLEGUA

Bangladeshen, 5 eta 15 urte bitarteko 5 milioi haur inguru gaizki ordaindutako enplegu arriskutsuetan aritzen dira, derrigortuta. Dhakako auzo baztertuetan bizi dira horietako %63, zortitik gora lanordu egiten dituzte egunero, eta %33 ez da eskolara sekula joaten. *Bangladesheko haur langileentzako hezkuntza* proiektuaren bidez, haur horien bizi-baldintzak hobetzen ditugu, eta eskolara joateko aukera ematen diegu. Etorkizunean, bizi duten pobrezia-egoeratik ateratzeko aukera emango dien hezkuntza.



GUATEMALA AMA-HIZKUNTZAN HEZTEA

Guatemalako Zona Reinako biztanle gehienak maiak dira, eta muturreko pobrezian bizi dira: nekazaritza-komunitate sakabanatu eta iristeko zailtan bizi dira, eta eskola gutxi daukate. Orain arte, irakasleek ez zekiten maiaz, eta maia denez txikitxoan ama-hizkuntza, muga linguistikoak are gehiago zailtzen zuen ikasleen ikasketa-prozesua. Educo elkarteak gabezia horiek ase nahi ditu, eta, horretarako, ikasketa-plan bat jarri du martxan, honako hauei arreta berezia jarrita: q'equchi hizkuntza maia irakatsiko da ama-hizkuntza gisa, bigarren hizkuntza gisa gaztelania emango da, eta, azkenik, matematika ikasiko dute (hala matematika tradizionala nola maia kulturakoa).



MALI EDATEKO URA HELBURU

Maliko nekazaritza-guneetako biztanleen erdiak baino gehiagok ez dauka edateko ura lortzeko modurik, eta soilik %5ek dauka saneamendu-sarea. Ibaiko urak kutsatuta daude eta gaitzak sortzen dituzte, hala nola sukar tifoidea eta beherakoa. Educo elkarteak higiene- eta saneamendu-programa bat dauka martxan, nekazaritza-eremuko sei eskolatan, eta, besteak beste, honako ekintza hauek gauzatzen dira: letrinak jartzen dira, irakasleei osasun-gaiei buruzko hezkuntza ematen zaie, ikasleekin sentsibilizazio-lana egiten da, adibidez, eskuak garbitzearen garrantziari buruz, eta higiene-kutxak ematen dira.



ESPAINIA HAURREN MALNUTRIZIOA

A Kontuan hartuta, Espainian 2007an hasi zen krisi ekonomikoaren ondorioz, ezberdintasunak gero eta globalagoak direla, jantoki-beken programa jarri genuen martxan, seme-alabei elikadura ona emateko arazoak dituzten familiei laguntzeko asmoz. Jantoki-bekari esker, jatordu oso, osasungarri eta orekatua jasotzen dute umeek, egunero. Eskola-ikasturtea martxan denean, eskolei ematen zaizkie laguntzak, eta uda-garaian, aldiz, diru-laguntza opor-ekintzetara bideratzen da, betiere, egunean jatordu bat eskaintzen badute, gutxienez.



Hiruhileko bat irau dezake, baina baita ikasturte osoa ere



Aurrez aurre edo modu ez-presentzian hartu daiteke parte



Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasle-taldeak. Irakasleak eta hezkuntza-taldeak.

Zona Reyna: hezkuntza herriaren esku (Guatemala)

DESKRIBAPENA:

Roberta, Jacinto, Margarita, Gabriela eta Don Chus dira dokumentaleko protagonistak, eta haien bitartez ezagutuko dugu inguru horretan gauzatzen den hezkuntza-programa. Programa horrek irakasleak prestatzen ditu, haurren eta gazteen beharrezan erantzuteko eta hezkuntza elebiduna emateko (gaztelaniaz eta maia-hizkuntzan), testuinguru soziokulturalera egokiturik



HELBURUAK:

- Bideo dokumental bat ikusiz, beste errealitate batzuk ezagutzea
- Hezkuntzarako eskubideaz eta kulturartekotasunaz gogoeta egitea eta maien kultura hobeto ezagutzea.

EDUKIAK:

- Guatemalako herri indigenen (edo jatorrizko biztanleen) egoera eta arazoak
- Genero-desberdintasuna eta hobetzeko proposamenak
- Landa-eremuetako hezkuntza elebiduna
- Haurren eskubideak

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Interneteko konexioa edo DVD-irakurgailua eta proiektagailua



60 a 90 minutu



Aurrez aurre edo modu ez-presentzialean hartu daiteke parte



Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eskola-taldeak, 13 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta nerabeak, eta helduen taldeak.

“Hegoalderanzko Begiradak” Erakusketa

DESKRIBAPENA:

20 argazkiko erakusketa honen bidez (Hegoaldeko haur, emakume eta gizon batzuei eginiko begiradak), egunero pobrezari aurre egiten dioten pertsona horien bizitzak ezagutarazten ditugu.

Istorio erreal eta pertsonalez osatutako bilduma da, egoera ahulenean daudenen eguneroko bizitza ezagutzeko bide gizatiarrago bat ematen duena.



FORMATUA:

- 20 argazki ditu (80 x 50 cm)
- Finkapena: 2 kako argazki bakoitzaren atzetik

JARDUERA OSAGARRIAK:

- Hitzaldia
Argazki-erakusketaren inguruan, gutxi gorabehera 60 minutu dirauen jarduera bat egiteko aukera eskaintzen dugu.

Jarduera hori, hain zuzen, Educok lan egiten duen herrialde bati buruzko sentsibilizazio-hitzaldia da.



Erakusketa



Publikoa, oro har

Haurren lan-esplotazioari buruzko erakusketa

DESKRIBAPENA:

Erakusketa honen bidez, nahi dugu **Bangladesheko haurren** lanaren errealitatea hurbiletik ezagut dadin, bai eta Educoc, hezkuntza-arloan, herrialde horretan egiten duen lanaren bilakaera ere.

Bangladesh, bost urte geroago Educoc 2007an sortu zuen erakusketaren jarraipena da. Bost urte geroago, erakusketa irudi berriekin osatu da, neska eta mutil langile horiek nola zeuden ikusteko.

Arazoak bere horretan jarraitzen badu ere eta hurrek lanean jarraitu behar badute ere familiei bizirauten laguntzeko, oraindik badute aukera bat: badute sarbidea kalitateko hezkuntza batean, ordutegi egokitu batzuekin, eta, horrela, ikasketak bukatu ahalko dituzte, beraien bizi-baldintzak hobetzeko lehen pausozat.



FORMATUA:

- Polikarbonatozko 11 plaka oso arinak (100 x 70 cm), argazkiekin eta testuarekin
- Finkapena: 2 kako argazki bakoitzeko

JARDUERA OSAGARRIAK:

- Hitzaldia
Argazki-erakusketaren inguruan, gutxi gorabehera 60 minutu dirauen jarduera bat egiteko aukera eskaintzen dugu.
- Jarduera horretan, hain zuzen, haurren esplotazioari eta eskubideei buruzko hitzaldi bat emango da, eta solasaldia egingo da etorritako entzuleekin.



Erakusketa



Publikoa, oro har

“Eraldatzen ikasteko zirrara”

Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako unitate didaktikoak haurren eskubideei buruz, haurren parte-hartze metodologiek.

DESKRIBAPENA:

Haurren eskubideei buruzko material didaktikoaren bidez, gonbita egiten zaie irakasleei edo erakunde sozialetako hezkuntza-lantaldeei haurren parte-hartze prozesu baten barruan koka daitekeen jarduera-proposamen bat abian jar dezaten. Haurrek beste errealitate batzuk ezagutzen dituzte, eta, aldi berean, ekimen xume batzuk aurrera eramatera bultzatzen dira, beraien eskubideak aldarrikatzeko eta, areago, eragiten dieten egoera jakin batzuk eraldatzeko.



HELBURUAK:

- Umeei zein helduei haurren eskubideak ezagutaraztea eta munduko hainbat tokitan eskubide horiek duten betetze-mailaz sentsibilizatzea
- Irakasleak eta haurrei lagun egiten dieten helduak motibatzea, haurren parte-hartze prozesuak abian jar ditzaten
- Haurrak engaiatzea beraien taxuturiko proposamenetan parte har dezaten, beraien eguneroko bizitzako gaiak, dagozkien eskubideetako baten edo besteren ingurukoak, aldarrikatzeko edo praktikan jartzeko helburuz.

EDUKIAK:

- Haurren eskubideak. Eskubide-ikuspegi batetik heztea.
- Haurren parte-hartzea, eskubide gisa eta hezkuntza-prozesu gisa.
- Lehen Hezkuntzako ikasgelako parte-hartze metodologiaren adibideak.

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Material didaktikoa: “Eraldatzen ikasteko zirrara” irakasle eta hezkuntza-lantaldeentzako gida



60 minututik aurrera, 10 saioko proiektu bateraino



Presentziala eta ez-presentziala



Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola-taldeak.
Erakunde sozialetako haur-taldeak.
Irakasleak eta hezkuntza-lantaldeak

Haurren Eskubideei buruzko erakusketa

DESKRIBAPENA:

Erakusketa honen helburua da Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa jendeari, oro har, ezagutaraztea, eta haur eta nerabeei, bereziki. Nazio Batuek 1989ko azaroaren 20an onartu zuten Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, eta oinarritzko lau printzipio jasotzen ditu bere 54 artikuluetan: bereizkeriarik eza; haurraren interes gorena; bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; eta eragiten dien guztian parte hartzea. Haurren eskubideei buruzko erakusketaren inguruan, hitzaldiak eta tailerrak antolatzeko aukera eskaintzen dugu, bai haur eta nerabeentzat, bai helduentzat. Jarduerak, orobat, haurren eskubideen hezkuntzari buruzko tailerrak antolatzeko aukera ematen du, irakasle eta hezitzaileentzat.



FORMATUA:

- Erakusketa osoa da guztiz, eta, aldi berean, arina eta muntatzen erraza.
- Foamezko 10 panel ditu (150 x 90 cm).
- Panel bakoitzak hiruki-formako euskarri bat du, lurrean kokatu eta zutik irauteko.

JARDUERA OSAGARRIAK:

- Hitzaldia
Argazki-erakusketaren inguruan, gutxi gorabehera 60 minutu dirauen jarduera bat egiteko aukera eskaintzen dugu.

Jarduera horretan, hain zuzen, haurren eskubideei buruzko hitzaldi bat emango da, eta solasaldia egingo da etorritako entzuleekin.



Erakusketa



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza.

Haurren Eskubideen Kartela

DESKRIBAPENA:

Haur eta nerabeei haurren eskubideak ikusiz gogorarazteko edo laburtzeko balio duen ikus-materiala.



HELBURUAK:

- Haur zein helduei haurren eskubideak ezagutaraztea.

EDUKIAK:

- Haurren eskubideak. Eskubide-ikuspegi batetik heztea.

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Material didaktikoa: Educoren Haurren Eskubideen Kartela



Ez-presentziala



Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola-taldeak. Erakunde sozialetako haur-taldeak. Irakasleak eta hezkuntza-lantaldeak

Mobilizazio-ekintza: Haurren Eskubideen Konbentzioaren urteurrena ospatzea

DESKRIBAPENA:

Taldeei eta ikastetxeei gonbita egiten diegu Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren urteurrena ospatzera, azaroan. Educotik hainbat ideia eta tresna eskaintzen ditugu, tailerrak, mobilizazio-jarduerak, materialen mailegua, eta abar antolatzeko. Jarri harremanetan lantalde teknikoarekin, eta lurraldeko ordezkaritza bakoitzean dauden deialdien zein material erabilgarrien berri emango dizu.



50 minututik aurrera



Ariketa presentziala eta ez-presentziala



Publikoa, oro har (eskola-taldeak, elkarteak, erakunde sozialak, etab.)

Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina

DESKRIBAPENA:

Educo **Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren Espainiako Koalizioko kidea da.**

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Kanpaina nazioarteko koalizioa da, 100 herrialdetik gorako hainbat GKEk, hezkuntzaroko sindikatuk, ikastetxek eta mugimendu sozialek osatutakoa, kalitadedun hezkuntzarako eskubidea guzti-guztientzat osotasunean bete dadila eskatzeko xede nagusia duena.

Urte guztian zehar, mobilizazioko eta eragin politikoko ekintzak, hezkuntzako jarduerak, eta abar antolatzen parte hartzen dugu. Gainera, urtero bi unitate didaktiko prestatzen ditugu (bat Haur eta Lehen Hezkuntzarako, eta beste bat, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako zein helduentzat) hezkuntzarako eskubideari loturiko gai zehatz baten inguruan:

- 2009an, gazte eta helduen alfabetatzea landu genuen.
- 2010ean, hezkuntzaren finantzaketa munduan.
- 2011n, emakume eta nesken hezkuntzarako eskubidea.
- 2012an, kalitateko hezkuntza goiztiarra.
- 2013an, irakasle ongi prestatu, motibatu eta ordainduen beharra.
- 2014an, hezkuntza inklusiboa.
- Eta 2015ean, hezkuntzak munduan duen egoera, azken 15 urteetako lorpenak eta guzti-guztientzat kalitadedun hezkuntza lortzeko erronkak.

HELBURUAK:

- Hezkuntza-materiala eskaintzea, hezkuntzarako eskubideak munduan duen egoerari buruzko edukiekin
- Ikasleak, irakasleak zein haur eta nerabei lagun egiten dieten helduak motibatzea, hezkuntzarako eskubidearen aldeko kanpaina honetan parte har dezaten.

EDUKIAK:

- Hezkuntzarako eskubidea: hezkuntzak munduan duen egoeraren lorpenak eta erronkak.
- Trebetasun demokratikoak hobetzeko hezkuntza-metodologiak.
- Beste errealitate batzuk.

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Material didaktikoa: Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren unitate didaktikoa.



50 minututik aurrera



Ariketa presentziala eta ez-presentziala



Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, hezkuntza ez-formaleko eta Helduen Hezkuntzako taldeak.

Erakusketa: Hezkuntza, etorkizunerako bidea

DESKRIBAPENA:

Erakusketa honek Educok hezkuntzaren alde egiten duen apustua azaltzen du, pobreziatik irteteko eta bizitza hobea erdiesteko aukerarik onena den aldetik.

Ibilbidean, hezkuntzarako eskubideak munduan duen egoeraren ikuspegi globala ematen da. Nazioarteko erakundeek ezarritako esparru orokorra eta Educoren proiektu berritzaileak bateratzen ditu, azken horien artean *Boliviako Tratu onaren txokoa*, *Kanbodiako Hezkuntza zorientua* edo *Ghanako Liburutegi ibiltariak* daudela, besteak beste.



FORMATUA:

- Deskribapena: 6 zutabe, foamezko 24 kubo (50 x 40 cm), testu eta irudiekin 4 aldeetan
- Finkapena: kuboek elkarri eusten diete

JARDUERA OSAGARRIAK:

- Hitzaldia
Argazki-erakusketaren inguruan, gutxi gorabehera 60 minutu dirauen jarduera bat egiteko aukera eskaintzen dugu.

Jarduera horretan, hain zuzen, hezkuntzarako eskubideari buruzko hitzaldia emango da, eta solasaldia egingo da etorritako entzuleekin.



Erakusketa



Publikoa, oro har

Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astea

DESKRIBAPENA:

Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astea (HMEA), goiburu berarekin mobilizatzen gara mundu guztian, kalitadedun hezkuntzarako eskubidea guzti-guztientzat betetzearen alde.

Astea apirilaren erdialdekoa izaten da, eta aste horretan zehar munduko 100 herrialdetan baino gehiagotan gizarte zibila hezkuntzarako eskubidea aldarrikatzeko mobilizatzen da.

Educon 2003az geroztik ospatu dugu HMEA, eta, aste horretan, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainako kide garen antolakundeok ikastetxeekin, erakunde sozialekin zein gizarte zibilarekin batera lan egiten dugu, ordezkari politikoen, hezkuntza-komunitatearen eta hedabideen arreta erakartzeko, mundu guztian kalitadedun hezkuntzarako eskubidea egia bihurtzeko beharraz.

Aste horretan, kaleko eta mobiliazioko ekintza ugari egiten dira hainbat hiri eta herritan, eragin politikoko ekintzak gauzatzen dira, eta, oro har, kalera irteten gara aldarrikatzera.

HMEAekin bat egitera animatzen zaitugu. Jarri harremanetan gure lantaldearekin ordezkartzetan, eta ekintza eta ekitaldien zein material eta tresna erabilgarrien berri emango dizugu.

HELBURUAK:

- Hezkuntza-komunitatea eta haur eta nerabeak mobilizatzea hezkuntzarako eskubidearen alde.
- Guztientzako kalitadedun hezkuntzarako eskubidearen urraketak ikusgai jartzea hedabideetan.
- Eragin politikoa lortzea, hezkuntzarako eskubideari buruzko nazioarteko itunak bete daitezen.



50 minututik aurrera



Ariketa presentziala eta ez-presentziala



Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, hezkuntza ez-formaleko eta Helduen Hezkuntzako taldeak.

Haurren parte-hartzeari buruzko prestakuntza-eskuliburua irakasleentzat

DESKRIBAPENA:

Haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzko material didaktikoaren bidez, gonbita egiten zaie irakasle edo erakunde sozialetako hezkuntza-lantaldeei prestakuntzako edo autoprestakuntzako jarduerak aurrera eraman ditzaten, haurren parte-hartzeari buruzko ezagutza handitzeko eta ingurune hurbilean haur eta nerabeen parte-hartze prozesuak abian jartzeko lagungarritzat. Modalitate presentzian, Educoko lantalde teknikoak prestakuntza eta aholkua emateko jarduerak gauzatzen ditu.



HELBURUAK:

- Parte-hartzearen inguruko edukiak dituen hezkuntza-materiala eskaintzea
- Irakasleak eta haur eta nerabei lagun egiten dieten helduak motibatzea, haur eta nerabeen parte-hartze prozesuak abian jar ditzaten

EDUKIAK:

- Haur eta gazteen parte-hartzea: definizioa, arloak eta tipologiak.
- Hezkuntza metodologia berritzaileak, parte-hartze prozesuak abian jartzeko. Ikaskuntza dialogikoa.
- Haur eta nerabeen parte-hartzeari loturiko zenbait jardunbide egokiren adibideak

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Material didaktikoa: "Haur eta nerabeen parte-hartzea" irakasle eta hezkuntza-lantaldeentzako gida



60 minututik aurrera



Ariketa presentziala eta ez-presentziala



Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta erakunde sozialetako haur- eta gazte-taldeetako irakasle eta hezkuntza-lantaldeak

Haurren Parte-hartzea: Haur Kontseiluak

DESKRIBAPENA:

Educotik hainbat ideia eta tresna eskaintzen ditugu, udaletako haur-kontseiluen prestakuntzako jardueretan laguntzeko. Educoko lantalde teknikoak prozesu horretan lagun egin dezake, bai haur eta nerabeak zein udal hezkuntza-eragileak prestatzeari dagokionez, bai ingurune edo errealitate hurbil bat eraldatzeko proposamena aurrera eramateari dagokionez. Zuen ekimenen berri eman diezagukezue, edo elkarrekin pentsatuko ditugu.



HELBURUAK:

- Haur-kontseiluak sendotzea
- Haur eta nerabeentzako parte-hartze espazioak sortzen eta sendotzen laguntzea
- Haur-kontseiluak osatzen dituzten haur eta nerabeen trebetasunak eta ezagutzak hobetzea, haurren eskubideei, parte-hartzeari eta herritartasun globalari buruz.

EDUKIAK:

- Haurren eskubideak
- Haurren parte-hartzea
- Trebetasun demokratikoak
- Herritartasun globala
- Haur eta nerabeen parte-hartzeari loturiko zenbait jardunbide egokiren adibideak

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Haurren parte-hartzeari buruzko Educoren material didaktikoak, haur-kontseiluen errealitateari egokituta.



60 minututik aurrera



Ariketa Presentziala



Haur Kontseiluak.

Erakusketa: Haurren Parte-hartzea

DESKRIBAPENA:

Haurren parte-hartze eskubidea betetzearen garrantziari buruzko erakusketa.

Erakusketan, haur eta nerabeen parte-hartzea zer den jasotzen da, bai eta helduek haurren parte-hartzeaz duten kontzeptua ere. Horrez gain, zenbait adibide ematen ditu, munduan zehar, haurren parte-hartze prozesuetan izan diren jardunbide egokien inguruan, eta haurren parte-hartzerako egin daitezkeen ekintza batzuk iradokitzen ditu.



JARDUERA OSAGARRIAK:

- Hitzaldia

Argazki-erakusketaren inguruan, gutxi gorabehera 60 minutu dirauen jarduera bat egiteko aukera eskaintzen dugu.

Jarduera horretan, hain zuzen, haurren parte-hartze eskubideari buruzko hitzaldi bat emango da, eta solasaldia egingo da etorritako entzuleekin.



Erakusketa



Publikoa, oro har

Zurumurruen aurkako proposamena: nola lan egin zurumurru, estereotipo eta aurreiritziekin

DESKRIBAPENA:

Mundu globalizatu batean bizi gara, eta mundu horretan hedabideek eta teknologiek funtsezko rola bereganatu dute balioak, sinesmenak, zurumurrak eta aurreiritziak zabaldu eta eratzean hainbat gairen inguruan, hala nola, kultura-aniztasunaren, generoaren eta abarren inguruan. Mundu digital horri dagokionez, gazteak sentikorragoak dira eta hurbilago daude, eta gizarte kritikoagoa eta bidezkoagoa lortzeko ezinbesteko eragileak dira.

Educotik, tailer praktikoak dinamizatzea eskaintzen dugu, gogoeta egiteko bai kontzeptu horiei buruz, bai teknologia berriek eta hedabideek duten rolari buruz. Gida praktiko baten laguntzarekin, irakasleek eta, oro har, helduek (familiak, hezkuntza-lantaldeak, etab.) parte-hartzearen bidezko lana egin ahalko dituzte, halakoetan hezkuntza-komunitateko kideren bati eragiten dion aurreiritzi edo zurumurruren bat desmuntatzen duten bideoak eta irati-iragarkiak erabiliz.



HELBURUAK:

- Kultura-aniztasunaren inguruan, gure gizartearen balioetako bat den aldetik, topaketarako eta elkarrizketarako espazio bat sortzea
- Irakasleen artean erantzunkidetasun-sentimendua sustatzea
- Irakasleak beste errealitate batzuetara hurbiltzea, kultura-aniztasunaz sentsibilizatuz

EDUKIAK:

- Estereotipoaren, zurumuruaren eta aurreiritziaren kontzeptuak
- Zer dioten hedabideek, jendeak eta datuek
- Zurumurrak, aurreiritziak eta estereotipoak desmuntatzeko proposamenak

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Ordenagailu bozgoragailuduna, Interneteko konexioa edo DVD-irakurgailua eta proiektagailuak. Irakasleentzako gida: "Kultura-aniztasunari buruzko zurumurrak desmuntatzen"



50 minututik aurrera.
Zenbait saio



Ariketa presentziala
eta ez-presentziala



Lehen Hezkuntzako 3. zikloa, DBH eta Batxilergoa. Irakasleak eta hezitzaileak. Helduen taldeak.

Gatazkak ebaztea

DESKRIBAPENA:

Fitxa didaktiko batzuk baliatuz, interesdunek abiapuntu bat dute eskura gatazken ebazpenari buruzko autoprestakuntzan.

Fitxak:

- “Indarkeria desikasteko zinema” – fitxa didaktiko honek, film eta ikus-entzunezko material ezagun batzuen bidez, aukera ematen digu halako baliabideak berriz ikusteko, gatazkak ebaztearen begiradatik.
- “Gatazkekin, elkarrekin hazten gara” – fitxa honetan, gatazka zer den eta nola heldu behar zaion azaltzen da.
- “Nola komunikatu behar dugu geure seme-alaba nerabeekin?” – fitxa honek, etxean, nerabeekin komunikazioa hobetzeko eta gatazkak ebazteko jarraibideak iradokitzen dizkigu.



HELBURUAK:

- Topaketarako eta elkarrizketarako espazio bat sortzea
- Gure inguruan, gatazkak ebazteko era baketsuak sustatzea.
- Tratu onerako tresnak gehitzea

EDUKIAK:

- Gatazkak ebaztea.
- Tratu onerako trebetasunak

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Gida didaktikoak



Ez-presenziala



Irakasleak eta hezkuntza-lantaldeak. Familiak.

Beste hezkuntza-
material, proposamen
eta ekintza batzuk

Prestakuntzazko kapsulak irakasle, familia, elkarte eta erakunde sozialentzat eta aholkularitza eskolentzat

DESKRIBAPENA:

Prestakuntzazko kapsulak gure erakundearen jarduera-ildo nagusietako baten barruan daude. Irakasle, familia, elkarte nahiz hezkuntza-arloari lotutako pertsona eta taldeentzat dira. Prestakuntza-ekimen hauek laburrak dira (60-90 minutu), eta haien xedea da abiapuntu izatea eskubide-ikuspegia duen hezkuntza baterako prestakuntzarako eta hainbat motatako hezkuntza-prozesuen sustapenerako (informazio eta sentsibilizazioko prozesuak, mobilizatzeko eta eragina izateko ekintzak, haur eta gazteen parte-hartze prozesuak, eta abar).

Beste alde batetik, aholkularitza eskaintzen dugu, haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia eskolan eta hainbat erakundetan sartzeko; era berean, talde eta kolektiboei lagun egitea ere eskaintzen dugu, ekintza solidarioak, haur eta gazteen parte-hartze jarduerak, eta abar garatzeko.



HELBURUAK:

- Prestakuntza eta aholkua emateko jarduerak aurrera eramatea, aztertzen diren gaien inguruko hezkuntza-prozesuak gara daitezen eragiteko.

EDUKIAK:

- Haurren eskubideak.
- Haurren parte-hartzea.
- Hezkuntza.
- Kulturartekotasuna.

BEHARRIZAN TEKNIKOAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIA:

Gida honetako gainerako hezkuntza-proposamenetan erabiltzen diren materialak (herritartasun globalari, haurren eskubideei, haur eta gazteen parte-hartzeari eta babesari buruzkoak).




60 minututik aurrera



Presentziala



Irakasleak, familiak, elkarte eta erakunde sozialak.



Informazio gehiago

NON GAUDEN, WEBGUNEAN:



www.educo.org

NOLA JARRI HARREMANETAN HEZKUNTZAKO LANTALDEAREKIN, MATERIALAK EDO JARDUERA PRESENTZIALAK ESKATZEKO:

Andaluzia:

 Feria kalea 151, lokala, 41002 Sevilla  **954 389 651**



Katalunia:

 Pujades kalea 77-79, 4. solairua. Bartzelona  **93 300 11 01**

Madriko Erkidegoa:

 Baldasano kalea 26, etxabea. Madril  **91 521 33 30**


Valentziako Erkidegoa:

 Lérida kalea 28, etxabea. 46009 Valentzia  **96 351 75 96**

Galizia:

 San Andrés kalea 143, etxabea. 15003 A Coruña  **98 120 08 26**

Euskadi:


 Juan Bautista Zabala kalea 12, 1. sol., 4. bulegoa. 48991 Algorta- Getxo, Bizkaia  **94 443 45 48**





AHOLKUA:

Behar ditugun edukiak bakar-bakarrik inprimatzen baditugu, paper birziklatuan eta alde batetik erabilitako orriak berrerabiliz, gure planeta zaintzen lagunduko dugu.



www.educo.org



educo@educo.org



[@Educo_ONG](https://twitter.com/Educo_ONG)



www.facebook.com/educoONG

